



# Basque Writing 27

## BELAUNALDI ALDAKETA


### Euskal Argitaletxeetan

Euskarazko literaturaren idatzizko tradizioa berri samarra da, ahozotasun tradizioa izan baitu batik bat. Zein garrantzitsua den, ordea, edozein hizkuntzarantz idatzizko tradizioa izatea, oinordekoei gure hizkuntzaren baliabideen testigantza uzteko eta hura bizirik mantentzeko. Horregatik, 27. Basque Writing hau **liburuaren mundua inguratzen duen giltzarriari eskaini diogu**, euskarazko literatura idatzia sortzen, hobetzen eta katalogatzen dutenei: **euskal argitaletxeei eta editoreei**.

Horretarako, mahai ingurua izan dugu, hiru argitaletxetako editoreekin: **Leire Lopez Ziluaga** (Susa), **Garazi Arrula Ruiz** (Txalaparta) eta **Uxue Razquin Olazaran** (Erein). Kazetaria eta Txalaparta argitaletxeko editorea **Ane Eslava** eta **Maddalen Subijana** PEN kidea aritu dira elkarrizketa moderatzen eta editatzen.

Azken urteetan izan den belaunaldi aldaketa ardatz hartuta, euskal argitaletxeen munduaren ba-

rrunbeak hobeto ezagutu eta gaur egungo eta etorkizun hurbileko egoera eta erronkak lehen esku-tik azalduko dituzte. Hainbat gogoeta ekarri dituzte solasaldira, baina gauza bat argi dute hirurek, liburuaren prozesu osoan zehar parte hartzen duten eragile guztiak (idazlea, inprenta, liburu-dendak, irakurleak etab.) zaindu behar direla.



Solasaldiaz gain, hiru artikuluren bidez sakonduko dugu gaian.

Elkar argitaletxeko **Xabier Mendigurenek** atzera egingo du so euskal letren hastapenak nolakoak izan ziren gogoratzeko, eta gaur egungo egoeraren zergatiak aztertu ditu. Jakin argitaletxeko **Xabier Eizagirrek** euskarazko liburugintzaren etorkizunaren hausnarketa ekarriko digu, urteetan zehar euskal liburugintzaren azterketa egin ondoren, auzi zehatz batean zentratuko da: liburu moten ekoizpen desorekatua. Azkenik, Igela argitaletxeko **Lander Majuelok** euskal liburugintzaren etorkizun hurbilaren inguruko gogoeta egingo du, euskarak jasaten dituen baldintza sozialak abiapuntu izanda.



**Sara Arregi**  
Euskal PEN





## Editoreen elkarrizketa

### “Erreleboa katalogoetan ikusiko da, baina aldaketarik pisuzkoena prozesuetan gertatuko da”

**Duela urte batzuk hasi zineten edizioan hirurak. Zer sentsazio edo inpresio izan zenuten sektorean sartzean, espero zenuten bezala topatu zenuten?**

**Leire Lopez Ziluaga:** Niri atentzioa gehien eman zidana, eta ematen didana oraindik ere, kontrarian moduan bizi dudalako, da idazleak honetatik bizi ezin izatea. Dena dago muntatuta idazleek idazten dituzten liburuen inguruan eta, aldi berean, haiek, gehienak, ezin dira hortik bizi.

**Garazi Arrula Ruiz:** Ofizio hau egiten ikasten da, ez dago titulaziorik, edo dagoena oso berria da. Beraz, hasi arte ezin jakin zer espero. Nor bere aurrezazguztatik eta bere usteetatik abiatzen da. Harritu ninduen izan zen zenbat eskuizkribu iristen diren, gutxiago espero nituen. Eta, bestetik, sareak eta kasu kasuko lankidetzak oso urriak iruditzen zaizkit. Badira, eta elkar zaintze bat badago, baina bakoitza berean dabilela iruditzen zait, denok gabiltzalako galtzak bete lan. Epe luzera

pentsatze hori falta zaigu.

**L.L.Z.:** Gure argitaletxean batzuetan denbora falta zaigu perspektibarekin pentsatzeko; beraz, elkartu eta beste maila batean pentsatzeko, are gehiago. Baina harremanak zaintzen ditugu, baloratzen ditugu, konfiantza dugu. Horrek igual ez dauka translazioa gauza konkretuetan, baina momentu batean edukiko du.

**Uxue Razquin Olazarán:** Nik, hasieran, lana oso erromantizatuta neukan. Ezagutzen nuen liburua, baina profesio bezala beste gauza bat irudikatzen nuen. Adibidez, badaude ego kontuak, eta niretzat hori kudeatzea da zailena. Bestetik, harritu ninduen liburuaren prozesua oso luzea zela; prozesu osoa kontrolatzea da niretzat zailena. Gero nabarmenduko nuke idazleekin harremanak oso politak izaten direla batzuetan. Zure irizpideen arabera saiatzen zara euren lana hobetzen eta prozesuan disfrutatzen.



**Azken urteetan, belaunaldi-erreleboa gertatzen ari da Euskal Herriko hainbat argitaletxetan. Oro har ibilbide luzea zuten editore batzuek erreleboa eman diete editore berriei, eta jende berria sartzen ari da argitaletxetan; kasu askotan, gainera, emakumeak. Zer**

Editoreak eta kazetaria Iruñeko LABA aretoan



## eragin izan dezake aldaketa horrek edizioaren panoraman?

**G.A.R.:** Egia da egon dela belaunaldi-aldaketa bat, eta hori bizi-erritmoei dagokie. Bestetik, gizonak ziren nagusi, eta hori orekatzen ari da orain. Ez da hemen soilik gertatzen, orokorra da. Horren emaitza katalogoetan ikusiko da, baina esanen nuke aldaketarik pisuzkoena prozesuetan eta moldeetan gertatuko dela. Garai batean, argitaletxeen ordezkaria editorea zen —gizonezkoa—, bat eta bakarra, eta hala, editoreak alde eginez gero, jakintza izugarriak egiten zuen alde. Orain, iruditzen zait koralagoa dela; aberasgarriagoa eta jasangarriagoa da orain egiten ari garen bidea.

**U.R.O.:** Belaunaldi aldaketa aipatu duzu; nik hasieran aurkitu ditudan oztopo gehienak izan dira generoari eta adinari lotuak. Esfortzu handia eskatzen du azaltzeak zergatik zauden zu postu horretan. Hori aldatzen ari da pixka bat, jada espazioa daukagulako gauzak egiteko. Gu hor egotea oso garrantzitsua da.

**G.A.R.:** Nik horregatik jartzen dut indarra prozesuetan. Gauza bat da egotea editore emakumea, aldatzen du, baina egiteko moduak, erabakiak hartzeko moduak aldatzen ez badira...

**L.L.Z.:** Guretzat garrantzitsuena ez da emakume bat heldu dadila ez-dakit-zer postura; justu hori zalantzan jartzen duen kultura politiko batean hezi gara, eta guretzat inportantea da azpian dagoen guztia aldatzea. Horrez gain, uste dut aldaketa modu zabalagoan gertatzen ari dela, ez bakarrik edizioan. Azken urteetan euskal

literaturaren harreran aldaketa handia egon da, eta gero eta irakurle gehiagok irakurtzen du klabe feministetan. Horrek guztiak ekarriko du aldaketa katalogoan, oraindik ere euskal gizartea eta euskal literatura oso diferenteak direlako: euskal gizartearen zati bat egon da gain-ordezkatua literaturan, eta egoera hori orekatzen joan beharko litzateke.

## Hizkuntza gutxitu batean argitaratzen duten argitaletxeak ditugu hizpide. Uste duzue euskal argitaletxeek gizartearekin erantzukizun berezirik daukatela edo izan beharko luketela?

**U.R.O.:** Euskarazko liburuak publikatzen ditugun aldetik, erantzukizuna euskal gizartearekiko badugu, politikoa edo soziala, baita kulturala ere. Ardura handia daukagu, erabakitzen ari gara etorkizunerako zer joango den gure katalogoetan, eta, beraz, euskal literaturan. Zerbait aberasgarria utzi nahi diegu ondorengoei, eta erantzukizuna handia da.

**G.A.R.:** Erantzukizun gehigarri bat badugu hizkuntzarekin, minorizatua den aldetik, eta hau bat egiten da, nahitaez. Horrek ez du esan nahi salmenta beste helbururik gabe euskaraz argitaratu ezin denik. Adibidez, estatuan gero eta argitaletxe gehiago ari dira eskubideak erosten lau hizkuntza ofizialeterako, gero argitaratu edo ez. Hau da, interes komertzial hutsa izan daiteke arrazoi bat euskaraz argitaratzeko. Beste gauza

bat da horrek balio behar duen; guri iruditzen zaigu ezetz. Guk bi hizkuntzatan argitaratzen dugu eta neurgailua ez da berdina; ez aukeratarakoan, ez baliabideak jartzerakoan. Eta behar-beharrezkoa iruditzen zait.



Uxue Razquin



Ane Eslava





**L.L.Z.:** Euskaraz argitaratzea hautu politiko bat da oraindik ere. Eta, euskaratik harago ere, zer argitaratuko duzun erabakitzea interbentzio politiko moduko bat da: zer testu, zer gai, nola kontatuko dituzun... Niretzat, adibidez, poesia argitaratzen jarraitzea bada hautu politiko bat; komertzialki ez du hainbeste funtzionatuko, baina inportantea da poesia-zirkulazioa egotea.

**Euskal Herriak egoera diglosikoa bizi duela kontuan hartuta, zeintzuk dira euskaraz argitaratzeko zailtasun nagusiak? Eta, kontrara, zeintzuk dira horren abantailak edo alderdi positiboak?**

**L.L.Z.:** Irakurle potentzialen kopurua txikia da. Gainera, euskaldun batzuk oraindik ere ohituago daude gaztelaniaz irakurtzera. Alderdi positiboak dagokienez, euskaldunen mundua txikia da, eta ahoz ahokoak funtzionatzen du; hala, posible da ipuin-liburu bat salduen edo mailegatuen zerrendan egotea. Beste abantaila bat zera da: gerta daiteke hogeitaz hamar pertsona batek literaturaren munduan inolako kontakturik izan gabe argitaletxera testu bat bidaltzea eta testua argitaratzea.

**G.A.R.:** Alderdi positiboak dagokienez, elkarlanean aritzeko erraztasun handiagoa dago, eta liburuaren katebegi guztien arteko harremana estuagoa da; inprentakoekin edo irakurleekin, kasu. Apustuak egiteko ere, gehiago arriskatu dugu, etxe handiagoak edo hizkuntza hegemonikoak baino. Itzulpeni dagokienez, oraindik ere maistralan ugari dago



Leire Lopez Ziluaga

ekartzeko eta ederra da klasiko horiek euskarara ekartzea.

**U.R.O.:** Mundu txikia aipatu dugu, baina hemen-go irakurleagoa nahiko fidela da; publikatzen denia guztia irakurtzen saiatzen dira normalean. Gainera, kontzientzia handiagoa dute gure lanarekiko. Bestalde, gutxiago garez eta gutxiago publikatzen denez, ikusgarritasuna handiagoa izan daiteke.

**Ikusi dugu liburugintza-sektorearen panorama ez dela bereziki argitsua: kontzentrazioa gero eta handiagoa da, liburu asko argitaratzen dira eta ez da erraza zurrumbilo horretan nabarmentzea edota liburuen "bizitza luzatzea". Panorama horretan, nola egiten dute aurrera argitaletxe txiki eta independenteek?**

**G.A.R.:** Egoera ez da samurra, eta talde handiek handitzeko joera dute. Halaber, merkatua atomizatzen ari da; gero eta argitaletxe independente gehiago daude. Hori positiboa da. Bestalde, erritmo oso bizian bizi gara, eta gero eta laburragoa da liburuen bizitza. Gerta liteke liburu bat nobedadetzat ez jotzea duela sei hilabete soilik argitaratu denean. Liburuaren bizitza luzatzen eta fondoa berreskuratzen saiatu behar dugu.

**U.R.O.:** Jendeak nobedadeak bakarrik nahi ditu. Gu geu ere sartu gara zurrumbilo horretan, eta beldurra ematen dit.



Garazi Arrula

Liburu asko kaleratzen dira, eta liburu-dendek ez dute lekurik. Bestalde, idazleek egindako lan guztiaren ondoren, lekua eman behar zaie liburuei, eta batzuetan bi astez baino ez zaie ematen. Nahiko tristea da. Ez zaie





Uxue Razquin, Leire Lopez Ziluaga, Garazi Arrula eta Ane Eslava, Iruñako LABA aretoan

denborarik ematen. Liburua, ordea, kontrakoa da: patxadaz irakurri behar da, eta denbora eman behar zaio irakurritakoari.

**L.L.Z.:** Liburu-denda batzuek, zorionez, euskal literatura zaintzen dute. Euskaraz asko argitaratzen da, baina gaztelaniaz askoz gehiago, eta, halere, denda batzuek lekua gordetzen diote euskarari. Euskal literaturak badauka irakurle kopuru txukun bat. Euskal literaturari eusten diote haiek. Azkenaldian, 30 urtetik beherako irakurle asko batu dira, eta transmisioa egon da. Argitaletxe txiki eta independenteek bereziki zaindu behar ditugu irakurleak eta liburu-dendak.

**Joeretatik eta merkatutik harago, zer bilatzen duzue zuek edizio-lanean?**

**U.R.O.:** Irakurle gisa irakurri nahi dudana bilatzen dut nik. Gogo handiz idatzitako zerbait, eta

ekarpenen bat egingo duen zerbait. Istorio onak bilatzen ditut, magia eta zirrara dutenak.

**G.A.R.:** Gurean egungo eztabaidei eta beharrei erantzuten saiatzen gara, eta elkarte edo mugimendu sozialei lekua ematen, baita estetika eta irudikapen berriei ere. Bestalde, uste dut indar handiagoa jarri behar dugula prozesuak eta sareteak sendotzen. Liburuaren kate osoari begiratu behar diogu, eta elkar zaindu, denentzako lekua egon dadin.

**L.L.Z.:** Niri ere prozesua bera zaintzeak axola dit gehien, kontuan hartuta prozesuaren zati bat alde ekonomikoa zaintzea dela. Idazlea prozesu osoan gustura egon dadila saiatzen, baina baita azalaren egilea, inprentakoak, maketatzailea eta liburu-dendak ere.

**Editoreak:** Ane Eslava eta Maddalen Subijana



## Euskal Liburugintzaren hastapenak

Euskal letren historia bat egitean ohikoa eta ia derrigorrezkoa da desenkusak emanaz hastea, hain panorama eskasa dugulako, eta ondoren beti aipatzen da gure literatura txiroa, berankorra eta erlijio-  
ra lerratuegia izan dela.

Hiru ezaugarri horiek egia dira, ez dago zertan ukatu, baina baieztapen horrek ondorioetan jartzen du arreta, eta **estali egiten ditu haien zergatiak**, gure konplexuak eta erruduntasuna agerian jartzeaz gainera. Hori dela-eta, **beste hiru ezaugarri azpimarratu nahi ditut**, gure historia ulertzeko lagungarriagoak direlakoan: bi estatuk zanpatutako nazio batean bizi gara, bertako eliteak ez du bere herrian sinetsi izan, eta banaketa dialektala gainditzeko tresnarik ere ez dugu eskura izan berriki arte.

- **Errenazimentuan**, Europa mendebaldean nazio-estatuak sortzen hasten direnean galdu zen Nafarroako erresuma, Espainiak zanpatua gehiena eta Frantziak xurgatua azken hondarra. Lehendik ere erresuma horrek ez zion ia batere jaramonik egin bertako hizkuntzari, baina administrazio propio bat izateak ahalbidetu ahalko zuen babesa eta sustapena. Aldiz, **atzerriko aginteak debekua eta mespretxua ezarri zituen**, sistematikoki.

- **Baserritar, arrantzale, artzain eta olariak** osatu izan dute gure populazioaren zati handiena. Langile xehe, elebakar eta alfabetatu gabeak gehienak. Ikasten zituzten letra apurrak elizako dok-

trinarenak izaten ziren. Hortik gora, ilustratzeko aukera zeukan gutxiengoak Frantziako edo Espainiako kultura miretsi ohi zuen, hango hizkuntza landu, hango ereduak jarraitu eta haren itzalpean lekutxo bat bilatu. **Kulturalki kolonizatua izan da gure herria, eta bertako burgesia konplizea izan da kolonizazio horretan.**

- **Hizkuntza natural guztiak bezala dialektalki zatitua egon da** euskara. Zatiketa hori gainditzeko tresna historikoak administrazioa, hezkuntza eta komunikabideak izan dira, baina, hain zuzen, euskarak ez du bere esku izan horietako bakar bat ere.

XX. mendean zehar hasi ginen, ez kanpokoen laguntzaz baizik **geure barrutik ate-ratako indarrez**, konponbidea jartzen hiru gabezia horiei: **soberania politikoa, bere buruan sinetsiko zuen herri ahaldun-  
dua eta zatiketa dialektala gaindituko zuen hizkuntza** eredu estandarra.



**elkar**

**Xabier Mendiguren**  
ELKAR argitaletxea



## Euskarazko liburugintzaren etorkizunari begira

Joan Mari Torrealdai 1976an euskal liburugintzaren azterketa abiatu zuenetik, **urtero-urtero osatu dugu Jakinen liburuari buruzko informazioa eta analisisia** (ikus Jakin.eus webguneko 'Liburu Behatokia' atala: [www.jakin.eus/liburu-behatokia](http://www.jakin.eus/liburu-behatokia)): euskarazko liburu guztien katalogotik abiatuz ekiten diogu azterketari. Denboraren poderioz azterketen metaketak ematen duen ikuspuntu pribilegiatuak liburugintzaren inguruko arazo, auzi eta erronka nagusi batzuk identifikatzen lagundu digu: testuliburuaren ekoizpena eta euskal curriculumaren garapena, argitaldarien atomizazioa, berrargitalpenaren ahulezia...

Oraingo honetan, euskarazko liburugintzaren etorkizunari begira, zuzendu beharreko joera makur bati helduko diot: **liburu moten ekoizpen desorekatuaz ari naiz**, hain zuzen.

Gure azterketatan, liburu ekoizpenaren eta ekoizleen hainbat alderdi landu ondoren, azterketaren beraren atalik beharbada esanguratsuen jorratzen dugu: ekoizpen tematikoa edota gaikako liburu moten sailkapena. **Sei liburu mota edo multzo sailkatu ohi ditugu**: hezkuntza eta irakaskuntza liburua (oroz gain, testuliburuak), haur eta gazteentzako liburua, giza eta gizarte zientzietako, helduen literatura, zientzia eta teknika liburua eta aisia liburua. Erants dezagun, ekoizpen kopuru absolutuei dagokienez, ordena horretan sailkatu ohi direla urterik urte. Baina aintzat hartu behar dugu bi lehen liburu motek, ugariak izanik (produktio osoaren % 65-70 inguru), publiko berari begiratzen diotela: haur eta gazteei, alegia. **Helduei, beraz, ekoizpen osoaren % 30-35 besterik ez zaie geratzen.**

**Inguratzen gaituzten hizkuntza hegemonikoek** behekoz gora jartzen dituzte pro-

portzio horiek, **produktioaren bi heren helduei bideratzen baitizkiete**. Gure kasuan helduen literaturak kopuru homologagarriak dituen arren (% 15 inguru), beste hiru liburu motak (giza eta gizarte zientziak, zientzia eta teknika eta aisia) oso behean mugitzen dira, hiruren artean % 20ra ia-ia iritsi ezinik. Berezi aipagarria iruditzen zaigu giza eta **gizarte zientzietako liburuaren kasua, zenbat gai edo diziplina barne hartzen dituen** ikusita: filosofia hasi eta geografia edo historiaraino, soziologia, etnologia, politika, ekonomia, zuzenbidea, etnologia edo hizkuntzalaritzatik barrena.

Azken buruan, kopuru horiek argi uzten dute **euskal liburuaren gure kontsumoa guztiz diglosikoa dela, desorekatua, sakontasun eskasekoa, alor batzuetara mugatua**. Hizkuntzaren beraren azterketa soziolinguistikoez ez digute besterik iradokitzen, egia esan. Ziur gaude etorkizunean ere euskara zein euskal liburua lotuta bilakatuko direla, onerako zein txarrerako.



**Jakin**<sup>•eus</sup>

**Xabier Eizagirre**  
JAKIN argitaletxea





## Nora doa euskal liburugintza?

Labur esanda, **euskal liburugintzaren prospektiba iluna da**; etorkizun hurbilak askoz arrisku zantzu gehiago dakartza zantzu onuragarriak baino. Egun euskarak jasaten dituen bi baldintza sozialak dira euskal liburugintzaren arrisku behinenak: gaztelera eta frantsesarekiko eremu geografiko berean bizi duen **muturreko egoera diglosikoa batetik**, eta aurrera egiteko **ezartzen zaion harreman ekonomikoa bestetik**.

Urteroko data seinalatuetan ia koreografiatuak diruditen euskal kulturaren ospatze publiko hutsalez haratago, oraindik ere eguneroko jardunean euskal liburugintza **ezin atera da bere prekarietate kronikotik**. 2008ko krisi osteko eta 2011ko borroka armatu osteko euskal kulturak zekarren promesa soziala, **kultur militantziatik kultur profesionalizatorako bidea** eta euskal kulturaren homologatze europarra, liburugintzaren kasuan **ez da inolaz ere bete**.

Hala doa beraz euskal liburugintza bidea egiten, lehengo behar eta ezinek oraindik ere makaltzen dutela, baina egungo mamuek elikatzen: sare sozialek hanpaturiko norbanako arrakastaren desira, **zapata kutxa bitan kabitzen garen arren eskaintzen zaigun elkarrekiko konpetentzia**, *star-system* tiki bat sortzeko gosea, instituzioek galdegiten duten autoreen internazionalizazio itsua, digitalizazioaren zulo aseezina, euskal liburugintza sektore ekonomiko "lehiakor" bat bilakatzeko beharra eta beste ziri neoliberal batzuk.

Bitartean, **euskal liburuaren katea, bere txikian, gero eta uniformeagoa da**. Azken bi hamarkadetan liburudenda, banatzaile, inprenta eta argitaletxeak gutxitzen joan dira, euskal liburugintzaren **aniztasuna murriztuz eta kaltetuz**. Autonomia galera orokor honek dakarren argitalpen-enpresa handiekiko dependentziaren erruz euskal liburugintzak egungo kultur **merkatuaren baldintzekin kolpe latzak jasateko aukerak handitu besterik ez dira egin**.

Kultur eskaintzaren maila oso altua den honetan, norantza atzokoa da: eragile txikiek itxi, handiek gero eta behar eta beldur handiagoak hazi. Eta kontrara, **beharrezkoa dena ia aipatu gabe doa**: hezkuntza eta kultura batuko dituen eta **diru-laguntzez haratago joanen den liburuaren sustapenerako plan nazional bat**, liburuaren katearen aniztasuna sustengatzeko laguntzak eta sareak, eta **kultur eragileen arteko elkarlana**.



**Lander Majuelo**  
IGELA argitaletxea